



Poliziak ehunka arma konfiskatu ditu Getxoko enpresa batean

Poliziak arma-trafikoaren kontrako operazioa egin du Espainiako erkidego ezberdinetan, tartean Euskadin. Antza, erabilgarriak ez ziren armak erreal bihurtzen aritzen zen sarea desegin dute.

Barne Ministerioak jakinarazi duenez, bost pertsona atxilotu dituzte Getxon, Galdakaon, Oloten (Girona) eta Liendon (Kantabria), eta 8.000 gerra-arma eta hainbat munizio atzeman ditu, merkatu beltzean saltzeko prest.

Gainera, Getxon, Iturribide kaleko lonja batean, armak manipulatzeko eta erabilgarri bilakatzeko tailer sofisticatu

bat topatu duela erantsi dute. Ehunka arma atzeman dituzte bertan eta atxilotutako bat lonja horren jabea izango litzateke. Horrek Liendon (Kantabria) duen txaleta eta industria-pabilioia ere miatu diutzte.

Poliziaren esanetan, desegindako taldea oso aktiboa zen, erabilezin bihurtutako gerra-armak bide legaletik erosten zituzten, manipulatuta eta erabilgarri bilakatu ostean, erakunde kriminalei saltzeko.

Polizia-operazio honen oinarrian 2014ko maiatzaren 24an Bruselako museo juduaren kontrako atentatua dago. Gizonezko batek lau pertsona hil zituen tiroz, eta poliziak eraso hartan erabilitako armak ikertzen aritu ziren. Ikerketa horren tiraka iritsi dira atzo desegindako gaizkile-taldearengana.

Zuloa eginda lapurretak egiten zituen talde bat desegin dute

Ertzaintzak saltoki handietan zulo handi bat eginda lapurretak egiten zituen talde bat desegin du Gipuzkoan, eta 28 eta 34 urteko bi pertsona atxilotu ditu taldeko kide direlakoan. Bi atxilotu horietako bat kartzelara bidali du epaileak eta bigarrena, berriz, karguekin aske gelditu da.

Neska batek sexu eraso jasan duela salatu du Zornotzan

Neska batek salaketa jarri du Ertzaintzaren aurrean, urtarrilaren 6ko goizaldean Zornotzan jasandako sexu eraso dela eta. Salaketa jasota, epaiketaren zain dago orain auzia, Udalak ohar batean zehaztu duenez.

Adingabe bati sexu eraso egin diote Durangon

Adingabe bati sexu eraso egin zioten hilaren 3an Durangon, Ertzaintzan jarritako salaketaren arabera. Udalak azaldu duenez, eraso Murueta Torre auzunean egin zuten. Bidaiarien kopuruak gora egin du euskal aireportuetan.




Bidaiarien kopuruak gora egin du euskal aireportuetan

Bilboko, Donostiako eta Gasteizko aireportuetan, denetan egin du gora bidaiarien kopuruak 2016an. Halaber, merkantzien garraioa ere hazi egin da Forondako aieroportuan.

Bidaiari kopuruaren hazkunderik handiena Forondan izan da (%228), baina Bilbokoak garraiatu ditu gehien: 4,5 milioi bidaiari. 2015eko datuekin alderatuta, %7,3 hazi da bidaiarien kopurua. Hazkundera barruko hegaldietan (2.582.830 erabiltzaile, iaz baino %4,8 gehiago) zein nazioartekoetan (1.987.568 bidaiari, %11,2 gehiago) izan da.

Merkantzia garraioari dagokionez, Gasteizkoa da Euskadiko erreferentziatzko aireportua. Honek 52.134 tona garraiatu ditu (2015ean baino % 12,4 gehiago).

Gripe kasuek gora egin dute urtarrileko lehen astean



Gripe kasuek gora egin dute urteko lehen astean Euskadin aurrekoarekin alderatuta, eta 100.000 biztanleko 341,6 kasu izan dira. Gripeak haurrengan du eraginik handiena, 0-4 adin tarteko haurren artean bereziki.

Sei pertsona hil dira Euskadin gripearen epidemia hasi zenetik. Hildakoen batez besteko adina 77 urtekoa zen: gazteenak 46 urte zituen eta zaharrenak, berriz, 93. Halaber, sei hildakoetatik lau emakumeak zire

Aurten orain arte dabilzan birus guztiak dira A motakoak, eta sartuta daude aurtengo txertoan. Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak eta Osakidetza gripearen aurkako txertoa hartzearen beharra azpimarratu dute.

La Milagrosako langileek protesta egingo dute, itxiera saihesteko

La Milagrosa ikastetxeko langileek mobilizazioak egingo dituztela iragarri dute, eraikinaren jabearekin akordiorik lortu ezean ateak ixteko arriskua dagoelako. Arrazoi horregatik, 39 langileren lanpostuak kolokan daudela esan dute eta laguntza eskatu diete agintariei.

Ikasleen Guraso Elkarteak jakinarazi duenez, Miranda Fundazioak eraikinaren alokairuaren prezioa adosteko asmorik ez badu ikastetxearen ateak itxi beharko dituzte.

'Orm elurretako erresuman' gaurtik




"Orm Elurretako Erresuman" filma euskaraz iritsiko da zinema aretoetara gaur bertan, Zinema Euskaraz programari esker. Barakaldoko Yelmo Megapark eta Cinesa Max Ocio zinematan ikusi ahalko da filma hau, hain zuzen ere.



Kopako final-laurdenetako zozketa

Reala-Bartzelona, Alcorcon-Alaves, Atletico Madril-Eibar eta Real Madril-Celta dira Errege Kopako final-laurdenetako partidak. Horrela erabaki da egindako zozketan.

Bost traineru Portugaleteko emakumezkoen estropadan



Portugalete, Deustu, Hernani, Hondarribia eta Castroko traineruak lehiatuko dira igande honetan Portugaleteko emakumezkoen lehen estropadan. Itsasbehera izan eta gero, 13:00etan, hasiko da, Solar plaza parean, eta Nautika Eskola parean amaituko da. Traineruek 4.000 metroko ibilbidea egin beharko dute.

Autismoa duen ume bati lagunduko dion lehen txakurra Euskadin



Rita, oztopoak gaintzen laguntzeko prest dagoen txakurra, Saioa Garridoren lagunik onena bihurtu da. Saioari, autismoa diagnostikatu zioten txikia zenean. Arrazoi horregatik, Ritak bere egunerokoan lagunduko dio, bere bizi-kalitatea hobetzen saiatzeko.

Atzo, Saioak eta Ritak agerraldia egin zuten Donostiako Aquariumean. Bilbon bizi den hiru urteko neskato alai kameraren aurrean lasai agertu bazen ere, Rita urdurixeago zegoen, inguruan hainbeste arrain ikusita.

Rita, autismoa duen ume bati lagunduko dion lehen txakurra da Euskadin. Saioari bere egunerokoan laguntzeko prest dago, eta Inga Aguirreamalloa neskatoaren amak azaldu duenez, familiako beste kide bat bihurtu da jada.

Saioaren amak azaldu duenez, kalera irteten direnean lasaiago ibiliko direla ziurtatu du, Saioak zaindari bat izango duelako ondoan. Hala, Saioa noizbait haserretuko balitz lasaitzen lagunduko diola gaineratu du.

Oraindik, Saioa ez da guztiz ohartu Rita bere ondoan dabilela beti, eta bien arteko harremana erabatekoa izan arte urtebete igaro daitekeela azaldu du Aguirreamalloak. Hala, Ritarekin gehien gozaten duena Saioaren ahizpa (Iraia) dela esan du Ingak.

Kalera irteten diren bakoitzean, Ritak asko laguntzen duela ohartu dira. Orain, Saioa inoiz baino hobeto dabil, eta lehen ez bezala, ibiltzen jarraitzeko prest agertzen da.

Autismoaren kasuan, adituek diote oso lagungarria dela ondoan maskota bat izatea, beraien bizi-kalitatea hobetzen laguntzen dutelako.

EGURALDIA

ABISU HORIA ELURRAGATIK